



Arartekoaren ebazpena, uztailaren 15ekoa. Horren bidez, Plentziako Udalari gomendatzen zaio, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren printzipioari jarraituz, hiri horretako Zubi Zuri deritzon zubiaren pasabidean era iraunkorren ikusgai jarritako laminak genero ikuspegitik berrazter ditzala eta, ondorioz, hautatutako argazki eta testuak ordezkari ditzala, emakumeek hiriko bilakaera sozial, kultural eta ekonomikoan izan duten presentzia esplizituki islatzen duten beste batzuk ipinita.

Aurrekariak

1. Plentziako herritar talde batek Arartekoak esku har dezala eskatu dute, haien ustez emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren printzipioaren aurkakoak izan daitezkeen udal jarduerak batzuk direla eta. Zehazki, Zubi Zuri deritzon zubian, hots, hiriko toki nagusi batean, udalerriko historiari buruzko panel batzuk era iraunkorren jarri izana salatu dute, non tokiko gizonen balioa baino ez den nabarmentzen itsasgizon gisa, emakumeek hiriko historiara egin dituzten ekarpenei dagokienez, haien balio eta merezimenduak batera aipatu gabe. Zehazki, paneletako batean hau dioen testua azpimarratu dute: *“El hombre de la villa tendría en su horizonte la mar, en la que se iría adentrando a lo largo del tiempo hasta convertirse en experto navegante”*. *“Hiribilduko gizonak itsasoa/ozeanoa izango zuen bere horizontean, eta horra barneratuko zen arian-arian, itsasgizon aditua bilakatu arte”*.
2. Kexaren nondik norakoak nahiz hura abiarazi dutenek aurkezturiko agiriak – aipaturiko paneletako argazkiak eta testuak barne– aztertu eta gero, beharrezkotzat jo genuen Plentziako Udalari salatu ziren jardueren gaineko xehetasun gehiago eskatzea, bai eta arazoak helarazi genion alde aurreko azterketa baten gaineko iritzia ere. Informazioa eskatzeko idazkian, berdintasunaren arloan indarrean dagoen legediko zenbait xedapen aipatu genituen, gogorazita, botere publiko gisa, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna berriaz sustatzeko neurriak abian jartzeko betebeharrak zehatza zutela, genero ikuspegia jarduerak guztietan txertatuz, orain ardurak zaigun kexan salatu diren jarduerak barne.
3. Erantzuteko idazkian, Plentziako Udalak aditzera eman zuen panel eztabaida-sortzaileen instalazioa hiriko historia ezagutarazteko Udalak bultzatutako jardueretako bat zela, eta, haren aburuz, panelok ez zutela inola urratzen sexuen arteko berdintasunaren printzipioa, haietan gizonen zein emakumeen irudiak ageri zirelako. Nabarmendu zuten, gainera, argazkiei laguntzeko hautatutako testuak hitzez hitz erreproduzitutako testu historikoak zirela. Azkenik, Plentziako emakumezko hiri milizianoei buruzko hitzaldi bat aipatu zuten, hirian, antza denez, antolatuta ziren historiaren gaineko jardunaldi batzuetan eman zena.



4. Geroago, kexu-egileen informazioa jaso genuen atzera ere. Haien iritziz, argazkiak hautatzeko prozesua guztiz ausazkoa izan zen, genero ikuspegia, hiriko emakumeek bertako historian aurrera eramandako jarduerak berariaz gehitu ahal izateko beharrezkoa, kontuan izan gabe. Gehitu zuten, haien iritziz, hori udal jardunean genero ikuspegia zeharo faltatzearen erakusgarri bat baino ez dela, ikuspegi horrekin jarduera guztietan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna errespetatzeko eta erdiets dadin sustatzeko. Era berean, argitu zuten Plentziako emakumezko hiri milizianoen gaineko hitzaldia kexa-egileetako batek eman zuela, bere kabuz, Udalak batere zerikusirik izan gabe gai hori hitzaldi baten gaitzat hauta zedin; ondorioz, uste dute datu horrek ez duela Udalaren erantzukizuna inola ere zuritzen, paneletan ipinitako argazki eta testuek genero ikuspegi ez izatea agerian uzteari dagokionez.

Hori guztia ikusita, gogoeta hauek egin behar ditugu:

Gogoetak

1. Lehenik eta behin, **aldez aurretik argitu** nahi dugu, esku-hartze honetan, kexa hau abiarazi duten pertsonak salatu dituzten eta gero Plentziako Udalar bere iritzia emateko aurkeztu zaizkion udal jarduerak bakar-bakarrik aztertzea mugatu behar dugula. Nahiz eta Plentziako Udalak, oro har, berdintasun politikak abian jartzeko eta bere jarduera guztietan genero ikuspegia txertatzeko betebeharra duen, gure esku-hartzea, praktikan, Zubi Zuri deritzon zubiko paneletan ipinitako argazkiek eta testu lagungarriek emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko betebeharrak publikoak kontuan izan duten ala ez aztertzeko baino ez da izango. Ildo horretan, hiriari buruzko historia jardunaldi batzuetan emakumezko hiri milizianoen gainean eman zen hitzaldiaren kausaz piztu den eztabaidak –datu horri buruzko iritzia bata zein bestea izan– ez du, gure aburuz, inola ere eragiten guk aztertzeko aurkeztu zaizkigun gertakizunetan, hau da, ea paneletan ipinitako argazki eta testuekin Udalak sexuen arteko berdintasunaren printzipioa eta printzipio horrek botere publikoei ekartzen dizkion betebeharrak urratu dituen. Horregatik, ez deritzogu beharrezko prozeduretan zehar bidenabar agertu diren beste jarduera batzuk balioztatzen hasteari, haiek ere hiriko historia berreskuratzeko programazioen barruan egon arren, haiei buruzko datu objektiborik eta behar bezala egiaztaturik ez baitugu, gainera. Hala eta guztiz ere, udal horri gomendatu behar diogu aurrerantzean, kulturaren arloko eta hiriko historia berreskuratzeko programazioan, kontuan izan dezala jarduera guztiei genero ikuspegi bat ematea.
2. Instalaturiko argazkiei eta testu lagungarriei dagokienez, nabarmendu behar dugu **desegokia dela itsasgizonen balioa berariaz aipatzea, aldi berean hiriko emakumeen balioaren gainean antzeko aipamenik egin gabe**, zeren horrek





islatzen baitu, gure aburuz, historiaren ikuskera ez-oso eta mugatu bat, eta oraina eraikitzen ere parte hartzen baitu, iruditeria kolektiboan errealitate partzial eta joera ideologiko jakin batera lerratu bat sendotuz, non gizonak protagonista diren historiaren bilakaeran eta emakumeak, ostera, bigarren plano batean geratzen diren –protagonismorik gabe eta balio erantsirik gabe– edo, besterik gabe, existitzen ez diren, ipinitako argazki askotan ematen den irudiarekin gertatzen den bezalaxe. Argazki batzuetan emakumeak ausaz agertze hutsak ez du eragin hori indarririk gabe uzten, emakumeok albo elementu gisa, toki nagusirik gabe, ageri baitira, gizonak ez bezala, azken horiei berariaz rol nagusi eta eskusiboa ematen zaie eta.

3. Bestalde, Plentziako Udalak **historia, besterik gabe, horrelakoa izan zela eta zehazki islatzera mugatu direla** argudiatu du paneletan jasotako hitzez hitzeko testu historikoen inguruan, eta argudio horren aurrez aurre jarri behar dugu kontzientzia berri batekin begiratzeko beharra, egungo garaiek ematen diguten kontzientzia batekin, hain zuzen. Gaur egun, badakigu emakumeek eta gizonen rol desberdinak jokatu dituztela historian, emakumeen ekarpenak gutxietsi egin direla, edo are erabat isildu dituztela, gure giza sistemak luzaroan gizonezkoei nagusitasuna eta emakumeei mendekotasuna bidegabe esleitzen zizkien iritzi bidegabean oinarritu direla. Gaur egun, pentsatzen dugu –eta halaxe dago jasorik gure antolamendu juridikoan– mundua bestela ulertu beharra dagoela, emakumeek eta gizonen geure bilakaera erkidea baldintza berdintasunean partekatu nahi dugula. Hortik abiatuz, **parametro zaharren berraztertze kontziente batek baino ezin ahalbide diezaguke historiaren berrirakurketa bat egitea, emakumeen ekarpenen balioa berreskuraturik eta, horrekin, beste orain bat eraikitzen lagundurik, pertsonen berdintasuna nagusi den orain bat, hain zuzen.**
4. Aztertutako datuak direla bide, egiaztatu dugu, horrenbestez, Udalak hiriko historia ezagutaraztearen Zubi Zuri deritzon Plentziako zubian ipinitako panelek, hain zuzen ere, gizonen bertako historiara eginiko ekarpenak bakar-bakarrik goraiatzen dituztela, eta hori emakumeek Plentziako garapen sozial, ekonomiko eta kulturalera eginiko ekarpenak are gehiago ezkutatu eta ikusezin bihurtzeko modu bat da, horrekin, era berean, gizonen eta emakumeen udalerririk horretako historian jokatutako rolaen inguruan estereotipo sexistak iraunarazten lagunduta. Hori guztia, azken batean, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun egoera sakontzeko modu bat da, **antolamendu juridikoak egoera horri aurre egitera behartzen gaituelarik, botere publikoak, batik bat. Gaur egun, botere publikoek historiaren irakurketa hori egitea ezin dugu onartu. Izan ere, berdintasunezkoak ez diren patroi kulturalak sustatzeaz gain, Konstituzioko 9.2 eta 14. artikuluetan berariaz galarazirik dago, eta halaxe garatzen da era zabalean emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko otsailaren 18ko Eusko Legebiltzarraren 4/2005 Legean.**
5. Hain zuzen ere, aurretik aipatutako emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko Eusko Legebiltzarreko 4/2005 Legeak modu zehatzean hala ezartzen





du 3. artikuluaen laugarren eta seigarren ataletan. Horietan aipatzen da euskal botere publikoek haien jarduera guztietan genero ikuspegia barne hartzeko duten beharra, bai eta emakumeen eta gizonen desberdintasunak oinarri dituen sexuaren araberako gizarte rolak eta estereotipoak deuseztatzea sustatzeko beharra ere. Aipatutako aginduek honakoa diote hitzez hitz:

“3. artikulua.- Printzipio orokorrak

(... ...)

4. Genero ikuspegia barneratzea.

Euskal aginte publikoek genero ikuspegia txertatu behar dute beren politika eta ekintza guztietan, halako moduz non horietan guztietan ezberdintasunak ezabatzeko eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko helburu orokorra ezarriko duten.

Lege honen ondoretarako, honakoa da genero ikuspegiaren integrazioa: emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharizan ezberdinak modu sistematikoan kontsideratzea, eta, horretarako, politika eta ekintza guztietan, maila guztietan eta horien plangintza-, egikaritze- eta ebaluazio-fase guztietan, ezberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko xedea duten helburu eta jarduketak zehatzak txertatzea.

(... ...)

6.- Sexuaren araberako rolak eta estereotipoak desagerraraztea

Euskal aginte publikoek, inola ere, sexuaren araberako rol sozial eta estereotipo batzuk desagerraraztea sustatu behar dute, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunaren oinarri baitira eta horien arabera emakumei etxeko eremuaren ardura eta gizonei eremu publikoaren ardura izendatzen baitzaizkie, eta hori, gainera, balorazio eta aitortpen ekonomiko eta sozial oso ezberdina eginez.

(... ...)”

Bestalde, lege horrek, 7. artikuluan, euskal udalei zenbait funtzio zehatz egotzen die gizonen eta emakumeen arteko berdintasunari dagokionez. Horien artean, guri dagokiguna aintzat hartuta, honako hauek azpimarratu ahal ditugu:

“7. artikulua.- Tokiko administrazioaren eginkizunak

1. Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan, Euskal Autonomia Erkidegoko udalei dagokie, bai banaka, bai partaide diren udal mankomunitateen bidez edo lege honetako xedeetarako eratzen dituzten mankomunitateen bidez, ondoko eginkizunak betetzea:

a) Azpiegiturak, programak eta prozedurak egokitu eta sortzea, genero ikuspegia beren administrazioan integratze aldera.

b) Toki-eremuan ekintza positiboko neurriak egikaritzea.

(... ...)





e) *Toki-eremuan, emakume eta gizonen egoerari buruzko azterlanak eta ikerketak egitea.*

(... ...)

g) *Toki-araudia nolako den eta nola aplikatzen den begiratzea, emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioaren arabera.*

(... ...)”

6. Laburbilduz, ondorioztatu behar dugu emakumeak historian ikusezin bihurtzea etengabekoa izan dela, gertakizunen interpretazio partzial eta ez-oso bat egin delako, eta horri errotik amaiera eman behar diogula, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak gure gizarteari egiten dion kalte handiaren jakitun garelarik gaur egun. Ezin ahatz dezakegu, errealitatea gizarte eraikuntza bat dela, eta horrexegatik da garrantzitsua gizarteak onar ditzan eta ikusgai bihurtu ditzan geure eguneroko errealitatearen zati izatea nahi ditugun alderdi eta balioak, hots, geure bizitzaren, gure herri eta hirietako errealitatearen, eta gizarte gisa dugun bilakaeraren zati, orobat. Ildo horretan aurrera egiteko, **ez da nahikoa botere publikoek ez baztertzea; beharrezkoa da, arestian aipatu diren lege aginduei jarraituz, era positiboan ere jardun dezaten emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzearen alde.** Aztertzen ari garen kasu zehatzean, hori hala egiteko Plentziako Udalak berariaz eta nahita aipatu behar ditu emakumeek hiriko historiara eginiko ekarpenak, halakoak denbora luzean ezkutatuta egon diren arren, ziurrenik hiri horren garapenerako funtsezkoak izan baitira. Plentziako gizonak ekarritako balioak soilik aipatzeak –ez da gure asmoa hori zalantzan jartzea, inola ere ez– populazioaren beste erdi horren, hau da, emakumeen, ekarpena, gaur egun gu garen bezalakoak izatea eta Plentzia den bezalakoak izatea ahalbidetu duena, isiltzen du. Horregatik, uste dugu udal horrek **bere jarduna berraztertu beharko lukeela, eta genero ikuspegia barne hartzen duten argazki nahiz testu berri batzuk ipini, alegia, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren helburua berezkoa daukan hiriko historiari buruzko ikuspegi berdinzaleagoa bat ematen duten batzuk, kanpaina horrek izan dezakeen partzialtasun sexista modu horretan desagerraraztearren.**

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

23 /2011 GOMENDIOA, uztailaren 15ekoa, Plentziako Udalari egina

Hiriko historia ezagutarazteko eta hedatzeko aurrera eraman dituen jarduerak berrazter ditzala, genero ikuspegi argi eta zehatza txertatuta, bereziki, helburu hori dela eta, hiri horretako Zubi Zuri deritzon zubiaren pasabidean argazki eta testu historikoekin era iraunkorrean ipinitako panelei dagokienez, hautatutako argazki eta testuen ordez emakumeek hiriko bilakaera sozial, kultural eta ekonomikoan izan duten presentzia esplizituki islatzen duten beste batzuk ipinita.

